

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

5732

116/2023 EBAZPENA, abenduaren 19koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita honako erabaki hau: Erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren 2023ko enplegu-eskaintza publikoa onartzen duena, eta EAEko ekonomia eta enplegua suspertzeko 2020-2024ko Berpiztu Programara biltzen dituen Ertzaintzan sartzeko plazak eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde-administrazioan eta sektore publikoko erakunde instrumentaletan deialdi publikoa egingo dutenak.

Gobernu Kontseiluak, 2023ko abenduaren 13an egindako bilkuran, onartu du erabakia (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren 2023ko enplegu-eskaintza publikoa onartzen duena, eta EAEko ekonomia eta enplegua suspertzeko 2020-2024ko Berpiztu Programara biltzen dituen Ertzaintzan sartzeko plazak eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde-administrazioan eta sektore publikoko erakunde instrumentaletan deialdi publikoa egingo dutenak). Beraz, behar bezalako publikotasuna emateko, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea ondorengo Erabakia: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren 2023ko enplegu-eskaintza publikoa onartzen duena, eta EAEko ekonomia eta enplegua suspertzeko 2020-2024ko Berpiztu Programara biltzen dituen Ertzaintzan sartzeko plazak eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde-administrazioan eta sektore publikoko erakunde instrumentaletan deialdi publikoa egingo dutenak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abenduaren 19a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
MARÍA BEGOÑA OTALORA ARIÑO.

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO
HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN ABENDUAREN 19KO 116/2023 EBAZPENARENA

ERABAKIA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN
ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
HEZKUNTZA ADMINISTRAZIOAREN 2023KO ENPLEGU-ESKAINZA PUBLIKOA
ONARTZEN DUENA, ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EKONOMIA ETA
ENPLEGUA SUSPERTZEKO 2020-2024 BERPIZTU PROGRAMARA BILTZEN DITUENA
ERTZAINZAN SARTZEKO PLAZAK ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
ERAKUNDE-ADMINISTRAZIOAN ETA SEKTORE PUBLIKOKO ERAKUNDE
INSTRUMENTALETAN DEIALDI PUBLIKOA EGINGO DUTENAK

Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 52.1 artikulua honako hau ezartzen du: «Aurrekontu-esleipena duten postuak betetzeko langileak behar direnean, postuok ezin direlako bete administrazio bakoitzean dauden giza baliabideekin, enplegu-eskaintza publikoa egin beharko dute euskal administrazio publikoek eta haien mendeko entitateek, edo antzeko beste edozein kudeaketa-tresna erabili, langileen ordezkartzarekin negoziatu ondoren».

Agindu hori betez, erabaki honen bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra- ren, haren erakunde autonomoen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren enplegu-eskaintza publikoa onartzen da. Eskaintza horretan, lanpostu hutsak biltzen dira, aurrekontuz hornituak daudenak, horiek betetzea atzerazintzat jotzen baita atxikipenez dagokien zerbitzu publikoen funtzionamendua egokia izatekotan.

Guztira, 590 plaza eskaintzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan; horietatik, 558 plaza karrerako funtzionarioei dagozkie, eta, 32 plaza, berriz, lan-legepekoiei.

Hezkuntza Administrazioari dagokionez, 886 plazako enplegu-eskaintza publikoa onartu da. Horietatik, 870 plaza hainbat irakasle-kidegori dagozkie, eta, 16 plaza, berriz, lan-legepekoiei.

Segurtasun Sailak Ertzaintzako 100 segurtasun-agenteren deialdia egiteko proposamenaren berri eman du (50 bide-segurtasuneko espezialitatearekin eta 50 ikerketa-espezialitatearekin).

Bestalde, Osakidetzak jakinarazi du ezen 2023ko urriaren 31n Administrazio Kontseiluak 2023ko enplegu-eskaintza publikoa onartu duela. Enplegu-eskaintza publiko horretan, estatutupeko langile finkoen 1.265 plaza daude.

Zuzenbide pribatuko gainerako erakunde publikoek eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitate instrumentalek jakinarazi dutenez, deialdi publikoan 169 plaza eskainiko dituztela.

Enplegu-eskaintza publiko horien helburua da enplegu publikoaren sektorea enplegatzaile eraginkor eta efiziente gisa sendotzea, kalitatezko enplegua sortzea eta hobetzea sustatzen duena, eta, horregatik, guztira 3.010 plaza sartuko dira enplegu-eskaintza publikoko plaza gisa Euskadiko ekonomia eta enplegua suspertzeko 2020-2024 aldirako Berpiztu Programan.

Horrenbestez, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren proposamenez, eta Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 17.d artikuluaekin eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18.l artikuluaekin bat, erabaki hau hartu du Gobernu Kontseiluak:

ERABAKIA

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen 2023ko enplegu-eskaintza publikoa onartzea. Erabaki honen I. eranskinean zehaztutako plaza hutsak eskaintzen dira.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren 2023ko enplegu-eskaintza publikoa onartzea. Erabaki honen II. eranskinean zehaztutako plaza hutsak eskaintzen dira.

Hirugarrena.– Dagozkion deialdietan zehaztuko dira eskainitako plazak lortzeko prozedurak eta baldintzak, bai eta desgaitasuna dutenentzat gordetako plazen banaketa ere.

Laugarrena.– Euskadiko ekonomia eta enplegua suspertzeko 2020-2024ko Berpiztu Programara biltzea Ertzaintzaren agenteen kategorian sartzeko plazak (III. eranskinean adierazitakoak).

Bosgarrena.– Euskadiko ekonomia eta enplegua suspertzeko 2020-2024ko Berpiztu Programara biltzea Autonomia Erkidegoko Administrazio Instituzionaleko zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakunde instrumentaletan deialdi publikoaren xede izango diren plazak (IV. eranskinean adierazitakoak).

Seigarrena.– Agindua ematea akordio hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoan argitaratzeko.

I. ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ENPLEGU-ESKAINZA PUBLIKOA

a) Funtzionarioak. Txanda irekia

A TALDEA	273
B TALDEA	
Laguntzaile Teknikoen Kidegoa	
– Obren eta Instalazioen Delineazioko Eskala	1
– Kudeaketa Informatikako Eskala	6
– Laborategiko eta Osasun eta Ingurumen Ikuskaritzako Eskala	7
– Hazien Eskala	1
– Arrantzako Eskala	6
C TALDEA	235
E TALDEA	
Laguntzako Langileen Talde Profesionala	29

A eta C taldeetan, zehazki zer kidego eta eskalatako plazak eskainiko diren Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu bidez zehaztuko da eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, lanpostuak betetzeko deialdi orokorretako behin betiko esleipenak egin ondoren.

b) Langile lan-kontratudunak. Txanda irekia

Autopsietako laguntzailea	1
Kaizain-burua	1
Justizia Administrazioko organo tekniko laguntzaileetako hezitzailea	1
Hezitzailea (Ibaiondo)	18
Mekanikaria	1
Laborategiko teknikaria	1
Peritu judiziala	1
Justizia Administrazioko psikologoa	4
Energiaren, Sistemen eta Ibilgailuen arloko arduraduna	1
Mantentze-lanen teknikaria	2
Gaueko jagolea	1

II. ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZKUNTZA
ADMINISTRATIOAREN ENPLEGU-ESKAINZA PUBLIKOA

A) Funtzionarioak.

Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoa	383
Maisu-maistren Kidegoa	487

B) Langile lan-kontratudunak

Sukaldeko langileak	21
Garbitzaileak	17

III. ERANSKINA

ERTZAINZAN ESKAINTZEN DEN PLAZA-KOPURUA

Segurtasun-agenteak, ikerketako espezialitatea	50
Segurtasun-agenteak, bide-segurtasuneko espezialitatea	50

IV. ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO INSTITUZIONALEKO ETA EUSKAL
AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEKTORE PUBLIKOKO ERAKUNDE INSTRUMENTALETAKO
ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOETAKO PLAZAK

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua. Estatutupeko langile finkoak. Txanda irekia	1.265
Etxepare Euskal Institutua	3
EEE - Energiaren Euskal Erakundea	9
Finantzen Euskal Institutua	8
EITB taldea	54
Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte SA (EJIE)	59
NEIKER-Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea SA	3
Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegirako fundazio pribatua - Musikene.	3
Basque Research and Technology Alliance (BRTA) Euskal Partzuergo Zientifiko-teknologikoa	1
Euskadiko Etxebizitza eta Lurra SA (VISESA)	2
Euskadiko Orkestra, S.A.	4
Osatek SA	15
HAZI Fundazioa	8